



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko martxoaren 22a

48. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio, babes eta gizarte-segurantzako sistema propio bat sortzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Mentaleko eta Suizidioaren Prebentzioko Plan bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du osasun-kudeatzaileen profesionalizazioaren, burutzak gardentasunez hautatzearen eta bateraezintasunak zabaltzearen alde. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da 705/1999 Errege Dekretuko 2. artikuluko 2. idatz-zatia alda dezan, halako moduan non langabezia-kontingentzia jasoko duten hitzarmen bereziak sinatzen ahalko baitira Gizarte Segurantzarekin. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza digitalera iragateko estrategia bat taxutu dezan, Foru Erkidegoko haur hezkuntzako ikastetxe, eskola, institutu, lanbide heziketako ikastetxe eta unibertsitate guztiak garai berrietara egokitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoaren garapena bultzatu eta sustatu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzua Kirurgia Orokorrekotik bereiz mantentzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio, babes eta gizarte-segurantzako sistema propio bat sortzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2017ko martxoaren 16an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Miguel Ángel Sangalo Grijalbo jaunak aurkeztutako Foru Lege proposamena, Pentsioetarako osagarri baterako neurriei eta osagarri hori bermatuko duen pentsio, babes eta gizarte-segurantzako sistema propio bat sortzeari buruzkoa.

Proposamen hori 2017ko martxoaren 2ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Mentaleko eta Suizidioaren Prebentzioko Plan bat presta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Mentaleko eta Suizidioaren Prebentzioko Plan bat presta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Osasun Mentaleko eta Suizidioaren Prebentzioko Plan bat presta dezan eta Legebiltzar honetan aurkez dezan, eta plan hori oraingo legegintzaldia amaitu aurretik abiaraz dezan. Planak giza baliabideak aurreikusiko ditu, bai eta horiek behar dituzten baliabide material eta ekonomikoak ere.

2. Aipatu plana presta dadin bizirako arriskua duten pertsonen arreta ematen dieten entitate eta profesional guztien parte-hartzearekin, zeharkako izaerakoa izan dadin hainbat arlotako neurrien bidez, eta handitu dezan osasuneko sistema publikoak duen arreta-ahalmena.

3. Aipatu planak neurri garrantzitsuak jaso ditzan honako hiru arlo hauetan: detekzio goiztiarra; psikologiaren eremuan arreta terapeutikoa hobetu eta areagotzea; eta gizarteari, oro har, orientazio ikastaroak ematea, depresio, antsietate, estres eta loaren nahasmenduaren kasuak identifikatu, prebenitu eta horietan esku hartu ahal izateko".

Iruñean, 2017ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du osasun-kudeatzaileen profesionalizazioaren, burutzak gardentasunez hautatzearen eta bateraezintasunak zabaltzearen alde.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du osasun-kudeatzaileen profesionalizazioaren, burutzak gardentasunez hautatzearen eta bateraezintasunak zabaltzearen alde."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du osasun-kudeatzaileen profesionalizazioaren, burutzak merezimendu eta gaitasunean oinarriturik gardentasunez hautatzearen eta bateraezintasunak zabaltzearen alde, osasun arloko profesionalen dedikazio eksklusiboa izate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du hartu beharreko neurriak har ditzan araudi indarduna gaurkotzeko eta, kasua bada, aldatzeko, osasun arloko langileen bateraezintasunak sei hilabeteko epean arautzearen, eta bermatzearen ezean arlo klinikoko buru, atalburu edo zerbitziburu lanpostu bat edo Oinarrizko Osasun Eskualdeko zuzendari lanpostu bat betetzen duten Osasunbideko langile fakultatiboek eskusibotasun araubidean ematen dutela zerbitzu, eta eginkizun hori ez izatea bateragarria jardura pribatuko laguntza-lanekin, besteren nahiz norberaren konturakoak izan."

Iruñean, 2017ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuaren premiaz da 705/1999 Errege Dekretuko 2. artikuluko 2. idatz-zatia alda dezan, halako moduan non langabezia-kontingentzia jasoko duten hitzarmen bereziak sinatzen ahalko baitira Gizarte Segurantzarekin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Espainiako Gobernuaren premiaz da 705/1999 Errege Dekretuko 2. artikuluko 2. idatz-zatia alda dezan, halako moduan non langabezia-kontingentzia jasoko duten hitzarmen bereziak sinatzen ahalko baitira Gizarte Segurantzarekin."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiaz du 705/1999 Errege Dekretuko 2. artikuluko 2. idatz-zatia alda dezan, halako moduan non espresuki onartuko baita Gizarte Segurantzarekin hitzarmen bereziak sinatu ahal izatea, langabezia-kontingentzia jasoko dutenak,"

Iruñean, 2017ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza digitalera iragateko estrategia bat taxutu dezan, Foru Erkidegoko haur hezkuntzako ikastetxe, eskola, institutu, lanbide heziketako ikastetxe eta unibertsitate guztiak garai berrietara egokitzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza digitalera iragateko estrategia bat taxutu dezan, Foru Erkidegoko haur hezkuntzako ikastetxe, eskola, institutu, lanbide heziketako ikastetxe eta unibertsitate guztiak garai berrietara egokitzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Hezkuntza digitalera iragateko estrategia bat taxutu dezan, foru erkidegoko haur hezkuntzako ikastetxe, eskola, institutu, lanbide heziketako ikastetxe eta unibertsitate guztiak garai berrietara egokitzeko.

– Baliabide teknologikoen gutxieneko zuzkidura exigi dezan ikasgune guztietan, Nafarroa osoan jakintza praktiko uniforme batzuk bermatuz.

– Berma dezan Nafarroako hezkuntza-erkidego osoak edukiko dituela beharrezkoak diren gutxieneko gaitasun digitalak, etorkizuneko belaunaldiak jakintza teknologiko egokiak eskura ditzaten beren garapen sozialerako eta laneratzeko.

– Ikastetxe guztietako irakasleentzako prestakuntza-prozesu bat abiaraz dezan, ikasgeletan dauden teknologiak ahalik eta gehien baliatzea bermatzeko, teknologia horien erabilera eficientea bermatuz.

– Gurasoentzako eta tutoreentzako aholkularitza-prozesu bat abian jar dezan, horiek ere ezagut dezaten iragate digitalaren prozesua, arloaren ezagutzatik abiatuta partaide bihurtuz"

Iruñean, 2017ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoaren garapena bultzatzea eta sustatzea dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoaren garapena bultzatzea eta sustatzea dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Irakaskuntza publikoa bultzatzea dezan eta haren garapenari bultzada sendoa eman diezaion; hartara, matrikulazio-prozesuetan eskari guztiei erantzunen die, ez du unitaterik kenduko ikastetxe publikoetan, eta ekintzak egiten ditu hezkuntza-

eskaintza publikoa eta Nafarroako irakaskuntza publikoko ikasle-kopurua handitzeko.

2. Egoera sozioekonomiko eta kultural txarreko ikasle asko dituzten ikastetxeei behar adina baliabide osagarri lehenbailehen esleitzen diezazkien, ikasle horiei eta horien familiei hezkuntza-erantzunik onena emateko.

3. Nafarroako hezkuntza-sistema publikoa berrantolatzeari eta berregituratzeari ekin diezaion eta, bereziki, eskolatzeari buruzko araudia alda dezan onartze-irizpideei eta eragin-eremuei dago kienez, eskolatzeak berma dezan ikastetxe inklusiboetako ikasleak beren ingurunearen edo herriaren gizarte-osaeraren isla izatea"

Iruñean, 2017ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzua Kirurgia Orokorrekotik bereiz mantentzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Sergio Sayas López jaunak honako mozio hau aurkeztu zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzua Kirurgia Orokorrekotik bereiz mantentzeko."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko martxoaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
